

NASTEAN

ZUGATZ “MALATO” EDO “MAILLATUA”

Gure legeak eta edestiko jazokizunik gogoangarrienak zugazpean edo “so el arbol” egin dira eta orregaitik daukaguz Bizkaia’n zugatz gogoangarriak, beti aritxak.

Aretxabalagana’n, Bizkargi mendiaren barrenean zinlekua, Gernika’ko arbola guztien artean ospetsuena, Abellana-da’koa Enkarterriko batzarretarako, Gerediaga’koa Durango-aldeko batzarretarako eta Luiando’ko dagoan zugatz mallatua.

Azkenengo onek gudariakaz dau zer-ikusia: Bizkaiatarrak doan joan bear izaten eben gudaritzara Aldunak dei egiten ebenean eta Bizkai-barruan, baiña or Luiando-inguruan amaitzen zan Bizkaia eta ortik aurrera joateko ez egoan iñor beartuta: Espatak zugatzean sartzen ebezan eta orregaitik zugatzari “maleato” edo “maillatua” izena jarri jakon.

Gure “insumisioak” or euken zeri oratua. Ez dot iñoz olakorik entzun.

Eta Jaunak gure gudariak ortik aurrera jarraitzea nai ba’eban, mendiz bizkairantza izan ezkeror illebeteko soldatea edo saria ordaindu bear eban aurretiaz eta mendiz arrantza joatekotan ille bikoa.

An egoan zugatz ori, baiña larregi zauritu ebelako-edo, igartu egin zan eta ortik artzen dogu aria, Labayru’ri jarraituz (VI, 51 eta 128), gaurko barri oneik agertzeko.

...



1708n. urteko aldunen batzar baten Zugatz maillatua begien aurretik aldendu zala gogoratzen dabe eta gure lege zarren 5n. atalean eta lenengo zatian agertzen dala bizkaitarrak, jaunak deituta, gudaritzara joaten diranean, Luiando’n zugatz ori dagon lekutik aurrera ez ebela joan bear aurretiaz saria artu barik eta ori orrelan bete izan dala beti. Eta ori beti gogoan izan daiten beste zugatz sartu bear dala lengoa egoan leku beratan eta ondoan arrizko kurutze bat idazki onegaz: “Auxe da Zugatz maillatua egoan lekua”.

...

1723n. urtean barriro agertzen da aldunen batzarrean arazo au azaroaren edo zemendiaren 4n. eguneko batzarrean eta auxe diñoe aldunak: “Zugatz maillatua izan zan lekua gogoan izan daiten beste zugatz bat sartu bear da, eta ondoan arrizko kurutze bat ipiñi eta idazki bat axe dala zugatz maillatuaren lekua gogoratzeko eta andik aurrera joateko bizkaitarrak saria artu bear ebela. Juan jose Aranguren Sindikoari emon eutsoen agindua erabagi ori beteteko orretarako bear ziran gaiak eta notiñak artuta.

Agindu ori bete dala agiri da gaur Luiando’n.

EUSKALDUN BARRIENTZAT



Zortzi erruak

KARMELE